



SUPER AMARA
BAT
Bidasoa Atletiko Taldea

SAN MARTZIALEKO XLVII. IGOERA ATLETIKOA

ARAUDIA

SUPER AMARA BAT-ek, San Pedro eta San Martzialeko Jaiak direla eta, **SAN MARTZIALEKO IGOERA ATLETIKOAREN XLVII EDIZIOA** antolatuko du. Proba 2025ko ekainaren 28an, larunbatan, egingo da; irteera Urdanibia plazan izango da eta helmuga San Martzialeko basilizian.

1. ARTIKULUA – INSKRIPZIOAK:

- Izen-emateak internet bidez egin daitezke kirolprobako webgunetik (06/27eko 13:00-rak arte) **11€** ko prezioan. (Dortsala, irteeran, frogaren egunean jasoko da)
- Irteeran bertan izen eman daiteke frogaren baino ordubete lehenago eta 10.15tan itxiko dira izen-emateak **15€**-tan.
- **Klubak antolatutako festetako 2 igoerak (San Martzialeko igoera, eta Guadalupeko igoera) izena emateko aukera dago (IGOERETAKO BONUA), 17€-ko kostuarekin. Izena ematean, Guadalupeko Igoerarako doako bonua jasoko duzu.**

2. ARTIKULUA:

Parte-hartzaile guztiek ezinbestean eraman beharko dute aurrealdean, ondo ikusteko moduan jarrita, antolatzaileek emandako zenbakia. Baldintza hau betetzen ez dutenak ez dira sailkatuko.

3. ARTIKULUA:

Probak 3,6 Km dauzka eta asfalto gainean egingo da.

4. ARTIKULUA:

Probaren egunean, atleta guztiek irteera-epaileen aginduetara egon behar dute goizeko 10:30ak (irteera ordua) baino 10 minutu lehenago.

5. ARTIKULUA – PARTE HARTZAILEEN ASEGURUA:

Antolakuntzak erantzukizun zibileko aseguru poliza bat edukiko du, indarrean dagoen legeriaren arabera. Ofizialki izena eman duten parte hartzaile guztiek istripuen aseguru-poliza baten estaldura izango dute. Proba egite hutsaren ondorioz gerta daitezkeen istripuak estaliko ditu aseguru horrek eta inoiz ez ezkutuko gaixotasun edo akatsa, arduragabekeria, zabarkeria, legeak eta arauak ez betetzeagatik, hala nola lasterketa egingo den tokira joateko eta handik irteerako joan etorrietan sortutako istripuak direnean.

6. ARTIKULUA:

Antolatzaileek ibilbidea aldatzeko eskubidea izango dute egoerak hala eskatzen badu.

7. ARTIKULUA:

Kategoriak: Parte-hartzaileak bi kategoriatan sailkatuko dira: Gizonezkoak eta emakumezkoak.
Lasterketa egunean 14 urte beteak dituzten pertsonak soilik har dezakete parte.

8. ARTIKULUA - SARIAK:

Garaikurrak bi kategorietako bost lehenentzat (gizon eta emakumezkoentzat)

9. ARTIKULUA - MEDIKU LAGUNTZA

Ibilbidean zehar mediku laguntza egongo da. Helmugan ere mediku laguntza egongo da. Antolakuntzak lasterkariei gomendatzen die proba egin baino lehen mediku azterketa bat egin dezatela eta kirol proba egiteak dituen arriskuak onartu ditzala parte hartzaile orok.

10. ARTIKULUA:

Kontrola 11:15etan itxiko da.

11. ARTIKULUA:

Araudi honetan jasotzen ez den gainerako guztian GAFeko eta I.A.A.F.eko arauak aplikatuko dira.

12. ARTIKULUA:

Proba honetan parte hartzen dutenek araudi hau onartzeko konpromisoa hartzen dute.

13. ARTIKULUA - IRUDI ESKUBIDEAK ETA DATUAK LAGATZEA

Parte hartzaile guztiek, inskripzioa egiten duten unetik, Araudi hau onartzen dute eta baimena ematen dute Bidasoa Atletiko Taldeak, bere kasa edo hirugarren erakunderen baten bitartez, inskripzioa egin dutenentzako datu pertsonalak eta proban zehar jasotako argazkiak, bideoak eta abar informatikoki erabiltzeko, kirola, sustapena edo alor komertziala soilik izango duen helburua lortzeko. Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak, izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzkoak, ezartzen duen bezala, parte hartzaileak fitxategi horietan sartzeko eskubidea edukiko du bere edukia partzialki edo osorik zuzendu edo ezabatzeko. Eskubide hau erabiltzeko idatziz eskatu beharko du Bidasoa Atletiko Taldeak duen helbidean (Ramon Iribarren kalea, 4 behe, atzealdea. 20304 Irun). Hemen kontuan hartu gabeko guztia IAAF Araudian aztertuko da.